

Bonapartearen sailkapena eztabaidatuz

ORREAGA IBARRA MURILLO *

1. LANAREN NONDIK-NORAKOA

Dialektologiaren helburua da hizkera edota dialekto ezberdinen konparaketa eta baita hizkuntza bereko eta gainerako hizkuntzekiko harremanen azterketa ere.

Ikuspegi honetan oinarrituz, Ultzamako hizkeraren ezaugarriak aztertu genituen gure doktorego tesian. Gure eremua “Lizasoko hizkera” izan zen, Bonaparteren sailkapenaren arabera; iparraldeko goinafarreraren azpieuskalki bat, Nafarroako hurrengo haran geografikoak biltzen dituen: Ultzama, Basaburu Nagusia, Imotz, Atetz eta Anue.

Txosten honetan lan horren nondik-norakoa eta beronetik ateratako ondorio nagusienak ekarriko ditugu; azkenean, Ultzamako eta Nafarroako hizkerentzat beste banaketa bat proposatuko dugu Bonaparterena eztabaidatuz.



* Nafarroako Unibertsitate Publikoa NUP

Egindako lanak bi helburu nagusi izan ditu.

Lehenengoa, Ultzamako euskararen ezaugarrien azterketa egitea: maila fonetiko-fonologikoan, morfologikoan, sintaktikoan eta lexikoan.

Bigarrena, Ultzamako hizkeraren eremua zehaztea eta, bide batez, Ultzamako hizkera dei daitekeen zerbait ba ote dagoen frogatzea, eta gerora, inguruko euskalkiekin dituen harremanak aztertzea.

Lehenengo helburuaren ondorioak lan luzeago batean eman ditugu ¹ zehatz-mehatz eta atalez atal, bokalismoan, kontsonantismoan, morfologian eta sintaxi mailetan. Ez ditugu, hartaz, ezaugarri horiek hemen aztertuko; egindako lanaren ondorioak ekartzea baita gure oraingo helburua.

Ez dugu, hala ere, alde batera utzi nahi momentu honetan euskalki honek bizi duen egoera soziolinguistiko larria.

Jakina ere badenez, atzerakada izugarria jasan du azken urteotan, Nafarroako hizkera gehienak bezala. Gaurregun, euskararen irakaskuntza eskoletan hasi denetik zerbait berreskuratzen ari dela sumatzen da eta euskara batuaren eraginez, estandarizazioa ere zabalduz doa. Arrazoi hauek guztiak direla eta “bertako hizkera” galtzeko zorian aurkitzen da, hiztun zaharrak izanik gordetzen duten bakarrak.

Bigarren helburua eremuaren zehaztapena izan da. Konparaketa interdialektalak egiteari interesgarria iritzi diogu, izan ere diferentzien zehaztapenek agerian utziko dituzte hizkera bakoitzaren ezaugarriak. Beraz, orain arte mantendu den sailkapena kolokan jarri dugu, eta azkenik berri bat proposatzera ausartu gara.

Hurrengo lerroen eta mapen bidez, Ultzamako euskarak inguruko beste euskalkiekin konpartitzen duena, hala nola urrutiratzen duten ezaugarriak zehaztuko ditugu. Batez ere, hurbilen dituen hizkerekin noraino lotzen edota bereizten den, bereziki hegoaldeko GN-rekin eta iparraldeko GN-ren beste aldaera batzuekin.

2. EREMUAREN BARRUKO EZERDINTASUNAK

Dialektologian ohikoa denez, lanaren ondorioz ateratako isoglosa batzuk bapatekoak dira; beste batzuk, ordea, gradualagoak izango dira. Horrela, isoglosa sorta hauek hizkera baten eta bestearen arteko trantsizio eremu bat markatuz joango dira. Azpimarratu behar da Ultzamako euskarak hegoaldeko GN-rekin ezaugarri asko konpartitzen duela. Hauetako batzuek ekialde osoa hartuko dute, eta Ultzamaraino hedatuko dira, eta hor izango dute muga.

Bestaldetik, isoglosa ezberdinen desplazamenduak faktore soziolinguistikoekin dutela zerikusia uste dugu. Mendebaldeko ezaugarriak (gehienak euskara baturako hartuak) hedatuz doaz, eta hegoaldeko GN-renak edota ekialdekoak atzeruntz: adib. *esan*, *erran*-en ordez, [x] belarearen hedapena edo

1. Argitzear dagoen liburu batean: IBARRA, O.; 1995, *Ultzamako hizkera. Inguruko euskalkiekiko harremanak*, Nafarroako Gobernua, Hezkuntza, Kultura, Kirol eta Gazteri Departamentua.

lexikoaren aldaera zehatz batzuen aukeraketa (*aurre*, *askolaitzin*, *anitz-en ordez*) etab. dira adibide argienak.

Hau guztia marraztutako mapen bidez frogatu daiteke, beraz, ekialdeko eta GN hegoaldeko euskalkiak agertzen dira, eta bertan marraztu dugu fenomeno bakoitzaren hedapena zein den. Horietako ezaugarri asko ekialdeko eta hegoaldeko GN-z hedatzen dira, eta, hain zuzen ere, horietako batzuek Basaburu Nagusiaren eta Ultzamaren artean dute muga bereizlea.

Hona batzuk: aferesia, sinkopa, *u/i*-ren arteko txandaketa, errotazismoa, objektu zuzena genitiboan, *-kin/-ki*-ren arteko txandaketa etab. Hauek guztiak Ultzamaraino heltzen dira eta ez dira mendebalderago zabaltzen. Besteetan, ordea, muga horrek ez du Ultzama hartuko, eta ekialderago gelditzen da, adib.: palatalizazioa, aditzen lehen aldiko *-n*-ren galera etab. Isoglosa hauek uhin batzuen itxura hartzen dute, batzuek eremu zabalagoa hartuz, eta besteek murriztagoa.

Laburbilduz, hauek dira ikerketa honetatik ateratako lau ondorio nagusiak, edo bestela esanda, eremuaren barruko ezberdintasun nagusienak banaketa intradialektal eta interdialektalari dagozkionak:

1) Ultzamera deritzan hizkeraren barruan (Bonaparteren sailkapenean oinarrituz), bi azpimultzo nagusi bereiz daitezke gutxienez: batetik, Ultzama, Atetz eta Anue haranez osatutakoa; (A) deituko diogu talde honi. Eta bestetik, Basaburu Nagusia eta Imotz haranei dagozkien hizkerak; (B) taldea.


Zehatzago izanik, B azpimultzoa, alegia, Basaburua Nagusia eta Imotz haranez osatutakoa, ez da zeharo trinkoa eta isomorfikoa. Beste azpibanaketa bat egin daiteke. Imotz haranak eta Basaburuko herri batzuek *-Erbiti*, *Gartzaron*, *Jauntsarats-* nolabaiteko trantsizio eremua osatuko dute. Bestaldetik, Basaburuan, aparteago mendebalderago dauden herriak: *Arrarats*, *Beruede*, *Itsaso*, *Igoa*, *funtsean*, aldenduko dira hauetatik, hizkera itxiagoa eta garatuagoa erabiliz.

Honez gain, haran geografikoen mugak ez datoz beti muga linguistikoekin bat. Esaterako, *Muskitz* herriak, *Imotzen* egon arren, kideetasun gehiago ditu A taldekoekin B-koekin baino. Halaber, *Goldaratz* herriko hizkera Basaburuko mendebaldean dauden herriei hurbilduko zaie, Imozkoei baino areago. Honenbestez, A taldean ikusten den isomorfismoa hizkera mailan, ez da B taldean gertatzen. Herri hauetako hiztunek ere horrela baieztatzen dute.

2) A eremuan mintzo den euskara eta hegoaldeko GN-ren arteko harremana oso nabarmena da. Esan daiteke *Ezkabarte*, *Odieta* eta *Esteribar* haranak, *-hegoaldeko GN-ren hizkerak izanik-* oso hurbil daudela ultzameratik. Gure iritziz, askoz hurbilago daude ultzameratik Basaburuko hizkeratik baino.

3) Basaburuko euskarak, bestalde, *Larraungo* edota mendebaldeko hizkerekin kideetasun gehiago ditu. Gure ustez, Basaburuko hizkera *-bereziki Goldaratz*, *Arrarats*, *Beramendi* eta *Beruetekoa-* *Larraungo* hizkeratik hurbilago dago, *Ultzamakotik* baino.

4) Azkenik, Nafarroako euskalkietan, nabarmenago da ekialde / mende-
baldearen arteko bereizketa, ipar / hegoarena baino.



EREMUAREN BARRUKO EZBERDINTASUNAK
ISOGLOSA NAGUSIEN KOKAPENA

3. ONDORIO OROKORRAK

Hurrengo lerrootan hizkuntzaren maila guztietan suertatzen diren diferentziak izango dira aztergai: fonetika-fonologian, morfologian, joskeran eta lexikoan. Horrela ba, Basaburua eta Ultzama ezberdintzen dituzten ezaugarrien zehaztapenari ekingo diogu ² atalezatal.

3.1. Fonetika/fonologia maila

1. Bokal sailean honako hau da azpimarragarriena: Basaburuan $i > e$ eta $u > o$ fenomenoa -goiko bokalak azken posizioan irekitzeko duten joera. Bilakabide fonetiko hau usu gertatzen da Basaburuan, hona ohiko ebakerak: *beoto*, *torre*, *dot*, *nek*. Ezaugarri honek lotzen du Basaburua eta GN iparraldeko beste hizkera batzuk.

2. Bokalen arteko asimilazioak gehiago betetzen dira Basaburuan, Ultzaman baino; nahiz eta Ultzaman hurbileko bokal asimilazioa oso arrunta izan. Izenaren morfologian: $i + a > ii$, $e + a > ii$, $u + a > uu$ ditugu Basaburuan. Ezaugarri hau Goierrin, Sakanan, Basaburu Txikian eta Bortzirietako hizkeretan agertzen da, gutxiago edo gehiago.

2. Aintzat hartu behar da Imozko errealizazioak ez direla hemen azaldu; batzuetan Basaburuarekin baitatoz, besteetan Ultzamarekin, eta beste zenbaitetan trantsizio eremua osatzen dute. Hurrengo kua-droan, ertzeetako fenomenoak hartu ditugu aztergai, helburua eskematizatzea baita. Gainera, ñabar-durak atalez atal eman ditugu.

3. Hurbileko bokal asimilazio oparoa: a-> e/i,u__, morfema barruan eta morfemaz kanpo: *burue, mendie, ikesi, bier*. Fenomeno honek eremu zabala hartzen du; ekialdeko euskalkietan ez da gertatzen (erronkaria, zaraitzua, aezkera), baina arrunta da eremu honetan guztian: bizkaieraz eta Goierriin, Sakanan eta hegoaldeko GN-ren hizkera batzuetan, batipat Ultzamatik hurbilen dagoen eremuan. Azpimarragarria da Imotz eta Basaburuan fenomeno honen maiztasuna jeisten hasten dela.

4. Sinkoparen oparotasuna ekialdeko euskalkien bereizgarria da. GN iparraldekoan (Baztan eta Ultzama) eta hegoaldeko goinafarreraz *atra, bigerna, batre bezalakoak ditugu*. Ultzamak, hartaz, goinafarrera iparraldeko euskalkien artean, maiztasun handien erakusten duen hizkera da. Imotz eta Basaburuan, berriz, ez da gertatzen.

5. Aferesia: hegoaldeko GN-ren hizkera gehienetan, eta iparraldekoaren barruan Bortzirietan, Baztan eta Ultzaman *y man, torri, kusi bezalakoak ditugu*. Imotz eta Basaburuan ez da gertatzen. Haran hauetan e-k ixtera eta glide bihurtzeko joera erakusten du hurrengo ingurunean *e + V > i: yon* ('egon'), *yakutsi* ('erakutsi'), *yain* ('eroain'). Forma hauek Arakilgo eta Intzako hizkeretan oso arruntak dira.

6. Basaburuan ez dago [ja], [wa] goranzko diptongorik, Ultzaman bai, hegoaldeko GN-z bezala.

7. Bokalen arteko kontsonante herskari ahostunen galera biziagoa da Basaburuan Ultzaman baino: *euzki, baatza, near*. Hau dela medio, bokal geminatuak ugariak dira: *baatza* ('baratza'), *noona* ('norena'), *zeena* ('zerena'), *lenoo* ('lenago'), *doo* ('dago'), *gara* ('gaa'). Forma hauek oso ugariak dira Sakanan, Basaburuan, Goierriin eta Araizko hizkeretan.

8. Yod zaharraren bilakabidea [x] izan da Basaburuko herri gehienetan eta [j] Ultzaman, ebakera zaharragoari atxikiz. Ultzama lotzen da hegoaldeko GN-ren hizkera batzuekin, lapurterarekin eta iparraldeko GN-ren hizkera batzuekin. Basaburua, aldiz, erdialdekoekin.

9. Errotazismoa: ekialdeko euskalkietan, hegoaldeko GN-z eta iparraldeko GN-ren Ultzaman eta Baztanen *bortz, bertze* etab. ditugu. Ezaugarri hau ez da Imotz eta Basaburuan aurkitzen, ezta iparraldeko GN-ren hizkera askotan (Araitz, Bortzirietan eta Arakil, bai, aldiz, Malerrekan) eta ezta mendebaldekoetan ere. Honenbestez, Ultzama ekialdekoekin lerratzen da eta Basaburua mendebaldekoekin.

10. *U/i* txandaketaz den bezainbatean, ez dago maiztasun nabarmenik bien arteko ezberdintasunak markatzeko. Baina, aditz partizipioa + *Ko* gero aldiko morfemarekin betetzen dena aipagarria da, *-tiko* izango dugu Ultzaman: *gelditiko, bildiko* etab., Baztanen eta hegoaldeko GN-z bezala. Honez gain, aditzen pluraleko bigarren pertsonaren morfema *-zie* da Ultzaman, eta Basaburuan *-z(u)te*.

11. [t]-ren bustidura automatikoaren ugaritasuna handiagoa da Basaburuan Ultzaman baino. Basaburuan sistematikoa da bokalerdia eta bokal osoaren ondoren; ezaugarri honek lotzen ditu erdialdeko euskalkiekin. Ultzaman, aldiz, bustidura falta eriden daiteke. adib. Anuen egiten den aditzen pluralgileetan *ttut > tut, ttiot > tiot*. Honen bidez, Ultzamak hegoaldeko GN-ren eta ekialdeko euskalkien arrasto batzuk erakusten ditu.

12. Mailegu erromanikoetan herskari ahostunaren maiztasuna, ahoska-bearen orde; *bago, bake, bekatu*, hegoaldeko GN-z bezala. Basaburuan hasierako ahoskabearen maiztasuna areagotzen da, nahiz biak mantentzen diren.

13. Geroaldian *-ko*-ren erabilera eransteian, *-n*-z bukaturiko aditzei, hurrengo kontsonante ahoskabeak ez dira ahostuntzen: *eginko, erranko*. Ezaugarri hau hegoaldeko GN-ren hizkera batzuetako (Gares) bereizgarria da eta arkaismoaren arrastoa bide da.

14. **edun* aditzaren formek *-u-* daukate: *dut, duk/n, duzu* Ultzaman; Basaburuan, aldiz, *-o-* daukaten forma batzuk daude. Forma hauek *-u*-ren irekitzearen ondorioz sortzen dira.

Orohar, esan daiteke, Basaburuko ebakera oso erlaxatua dela eta murrizteko joera handia duela, fonema asko galtzera jotzen dutelarik. Murrizketa edo asimilazio bilakabide hauek aditzetan eta izenaren morfologian usu gertatzen dira. Ebakera hau ez da eremu honetako bereizgarria. Jakina denez, euskarak honelako ezaugarriak erakusten ditu barra-barra, baina Basaburuaren kasuan, maiztasun handiagoz suertatzen dira.

3.2. Izenaren morfologia

1. Izenaren morfologian, deklinabidean zehatzago izateko, morfemen aukeraketa ezberdina egiten da: kasu destinatiboan *-(en)tzat* aukeratzen da Basaburuan, mendebaldeko euskalkietan bezala, eta *-(en)dako* Ultzaman, hegoaldeko GN-z bezala. Kasu prolatiboan ere *-tako* atzizkia da nagusi.

2. Kasu sozietiboan *-ki* -ren maiztasuna oso handia da Ultzaman. Morfema hau oso eremu zabalean erabiltzen da: hegoaldeko GN-z (Gulian izan ezik) eta ekialdeko euskalkietan; beraz, azken hauekin lerratzen da ultzamera. Basaburuan, ordea *-kin* morfema da nagusi eta erdialdeko hizkeretatik hurbilago egongo da.

3. Adlatibo singularrean tartekatu ohi den mugatzailea: *-rat*, aurki daiteke Ultzaman, adberbio deklinatueta: *honata, harata*. Hau iparraldeko eta ekialdeko euskalkien berezitasuna da. Norabide zuzeneko kasuan ez da *-runtz / -rantz* erabiltzen mendebaldekoetan bezala, hauen orde *aldera* posposizioa da erabiliena.

4. Kasu ablatiboan, *-tik* eta *-ta(r)ik* morfemak erabiltzen dira Ultzaman, ekialdean bezala. Basaburuan, ordea, *-n* marka hartzen dute: *-tiken* eginez, iparraldeko GN eta gipuzkerazko beste hizkeretan bezala. Hau ez da gertatzen Ultzaman, hartaz, joera honetatik aldentzen da.

5. Ultzaman singularraren eta pluralaren arteko ezberdintasun eza dago genitiboan, asoziatiboan, datiboan eta destinatiboan; adib. *gizonan* (sg. eta pl.). Basaburuan, aldiz, azentuaketaren bidez ezartzen da ezberdintasun hau. Basaburuan, genitibo posesiboa *noon* galdetzailea da eta singularrean honako formak dira nagusi: *mutillaana, gizonaana, morueena*. Genitiboaren forma hauek Etxarri Aranatzen erabilitakoekin (cf. KARASATORRE 1991) lotzen dira, eta baita Araizkoekin ere (cf. CAMPION 1880).

6. Ergatibo plurala ez dute absolutibo pluraletik ezberdintzen, eremu osoan *-ak* erabiltzen da: *gizonak in du, gizonak in dute*. Ultzamako euskara mendebaldeko euskalkiekin lerratzen da. Nahiz eta hegoaldeko GN homogeneoa ez den. Elkano eta Garesko euskara ekialdekoa litzateke *-ek* baitarabilte ergatibo pluralean, eta Oltza eta Goñibarkoa mendebaldekoa. Azken haran honetan txandaketak daude, Goñerriko testuetan eta Muzkikoetan (Gesalatz)-*ek* baitugu askotan, hauetan ere ongi bereizten da.

7. Kasu instrumentalean kontsonante apiko-albeolarez ahoskatzen da, Elkanon eta Garesen bezala: *ustes, karrikas karrika, gaues*. Ezaugarri hau nahiko sistematikoa da Ultzaman eta Basaburura ere hedatuz doa.

8. Bizidunen deklinabidea: *baitan*-en erabilera. Jakina denez, iparraldeko eta ekialdeko hizkeren ezaugarria da hau.

9. Beste ezaugarri hauek ere -Ultzaman gertatzen direnak eta ez Basaburuan- lotzen dira hegoaldeko GN-rekin: *zerbait, asko, sopra* eskuin nahiz ezker jarrita. Baita *guti* eta *guzi*-ren erabilera ere hegoaldeko GN-z eta ekialdean eta, azkenik, posposizio alorrean, *artio*.

3.3. Aditzaren morfologia

1. Nor-Nori-Nork aditz sisteman *-zki-* pluralgilearen maiztasunaren areagotzea gertatzen da Basaburuan; *-it-* pluralgilea erabiltzen bada ere, maiztasun handiagoa daukate beste formek. Erdialdeko hizkeren kidetetasunak azpimarratzen dira horrela. Ultzaman, aldiz, *-it-* da pluralgile bakarra, hegoaldeko GN-rekin hurbiltasuna erakutsiz, nahiz hegoaldeko GN-z *-zki-* ere erabili, adib. Garesen.

2. Pluraleko bigarren pertsonaren morfema; Ultzaman *-zie* da (*duzie, dakizie*), hegoaldeko GN-z bezala, eta Basaburuan, ordea, *-zte*: (*duzte, dakizte*).

3.-En gero aldiko morfemaren erabilera oparoa, *-n-z* bukaturiko aditzekin: *emain, errain, joain*. Berau ekialdeko hizkeren ezaugarria da, baita hegoaldeko GN-z, eta baztaneraz eta Altsatsuko euskaraz ere gertatzen du.

4. Basaburuan alokutiboaren erabilera askoz biziagoa eta arruntagoa da Ultzaman baino. Hegoaldeko GN-z oso erabilpen urria du.

5. Aditzaren iraganean *-a-* agertzen da, *-e*-ren orde: *zaukin, zakien, zabilen*, hegoaldeko GN-z bezala.

6. Ultzama haranean bakarrik ahaleraren erabilera pleonastikoa egiten da: *dezakeguke, dezakezuke*. Eredu honetan sorturiko berrikuntza bide da. Ez da Basaburura hedatzen ezaugarri hau.

7. *Nor* sistemaren ahaleran forma murriztuak erabiltzen dira hegoaldeko GN gehiengan: *naike, zaizke*. Ultzameraz txandaketan daude forma osotuekin, baina hauek ere testigatzen dira.

8. *Neri* izenordeari dagokion aditz-morfema *-r-* da gehienetan; hau dela eta, *dirazu, derezu, diral/zirak/n* formak arruntak dira hegoaldeko GN-z: Oltzan, Goñibarren eta Garesen. Basaburuan, aldiz, *dire > dee* dugu, bokal arteko *-r-* hori desagertzen delako.

9. *Y-* protetikoa singularreko 2. pertsonen adizkietan: (*yi yaiz, yitzen, yuen*). GN-z, erronkarietaz eta aezkeraz ere gertatzen da.

10. Agintera eta ahaleraren laguntzaileetan hasierako *e-* eta *de-*ren galera suertatzen da: *zazu, zazie*, eta *zazun, zagun, zaen, zoten, zoketena*; hegoaldeko GN-z bezala.

11. Hegoaldeko GN-tik aldentzen duten ezaugarrien artean, hauxe azpimarratu behar da: *-n > Ø* aditzetako lehen aldian, *zitzaizkio, nue*. GN hegoaldekoan, aezkeran, zubereraren hizkera batzuetan, erronkarietan, eta bizkaieraren eremu zenbaitetan arrunta da, baina ez da iparraldeko GN-raino hedatzen.

Aipatutako ezberdintasun hauez gain, badira aditz morfologian beste diferentzia batzuk, bi eremu hauek banatzen dituztenak, alegia, leku beretik pasatzen direnak. Ezberdintasun hauek fonetikari dagozkio gehien bat, ale-

gia, bilakabide fonetikoaren fruitu dira, eta ez aditz morfema ezberdinak erabiltzearen fruitu. Hurrengo lerrootan emango ditugu laburbilduak.

12. Aditz sintetikoetan, *egon* aditzean, Ultzaman *gaude*, *zaude*, *daude* formak nagusi diren bitartean, Basaburuan mendebalderago dauden herrietan (Arrarats, Igoa eta Goldaratzen), *gai*, *zai* eta *dai* ditugu.

13. *Joan* aditzaren oraineko forma sintetikoetan, polimorfismo handia gertatzen bada ere, honelako isoglosa nagusiak azpimarra daitezke. Ultzaman *nuaye*, *duaye* edo *naye*, *daye* etabar ditugu, *-oa-* erroaren ondoren *-y-* epentetiko eramanez. Basaburuan *-mendebalderago* dauden herrietan-, aldiz, *nii*, *dii* edo *nie*, *die* dira *joan* aditzaren oraineko formak. Basaburuko eta Imozko herrietan bi forma hauen arteko txandaketak daude, edota bitarteko formak.

14. Nork aditzaren iraganean: *nuen*, *yuen*, *zuen* formak arruntak dira Ultzaman, Atetzen, Anuen eta Imotzen; baina, Basaburuan eta Imotzen *ue* > *u* murrizketa fonetikoaren ondorioz: *nun*, *zun*, *giñun* etabar ditugu.

15. *Eraman* aditz sintetikoaren pluralgilearekin, *-damatxat-* eta horrelako formak dira arruntak Ultzaman. Basaburuko eremuan, aldiz, *deamazkit* etab. aurkitzen ditugu.

3.4. Joskera

1. Aditz izenarekiko objektu zuzena genitiboan aurkitzen da ultzamerazko testu zaharretan, nahiz orain arrastoak besterik ez aurkitu. Berau ekialdeko eta mugaz iparraldeko euskalkien bereizgarria da. Hegoaldeko GN-z arrastok daude (Ezkaabarte, Goñibar, Eguesibar, Erroibar) eta GN iparraldekoan -Ultzaman- erabiltzen zen baina gaur kasik absolutiboarenak ordezkatu ditu. Baztanen, aldiz, entzun daitezke oraindik. Basaburua aldentzen da parametro honetatik eta kasu absolutiboa da nagusi.

2. Esaldi kausaletan *bait-* aurrizki subordinatzailea da gehienetan erabiltzen dena Ultzaman; ekialde eta GN-ren ezaugarriak bete-betean atxikiz. Basaburuan eta Imotzen honen maiztasuna jeisten hasten da.

3. Denborazko esaldietan, *-larik* / *-nean* aukeratik lehenengoa da gehien erabilia Ultzaman, ekialde guztian bezala. Basaburuan eta Imotzen, ordea, *-nean-* en erabilera areagotzen da.

4. Esaldi konpletiboetan, *-en* atzizkiaren erabilera *uste* aditzarekin eriden daiteke: *nik usten torko den agudo*. Hartaz, Ultzama lerratzen da Baztan eta hegoaldeko GN-rekin. Imotzen eta Basaburuan, ordea, beti *-la* erabiliko da.

5. Ahalezkoak aditz burutugabeekin eraikitzen da, *ahal* + *-tzen* egituraren bidez sortutakoak dira gehienak, hegoaldeko GN-z bezala.

6. Aditzek gobernatzen dituzten kasuetan, mendebaldean inesiboa dena, ekialdean adlatiboa da: *afaltzera eman*. Ultzama, lehenengoekin lerratzen da, eta Basaburua mendebaldekoekin.

7. Partizipioez den bezainbatean, *-rik-*ez** bukatutakoak (*aspertuik*, *illik*, *iñik*) oso arruntak dira Ultzaman, ekialdeko euskalkietan bezala. Zenbat eta mendebalderago joan *-a(k)* / *-ta* morfemeaz eraikitakoak askoz usuago agertuko dira.

3.5. Azentua

Azentuan ere bada alderik, Ultzamako hizkeran oso nabarmena da eta azkenaurreko silaban ezartzen da gehienetan; bokal tonikoen tonikoen eta atonoen arteko aldea nahiko garbia izanik. Basaburuan, ordea, indar bertsua dute silaba guztiek; ez da erraza izaten, beraz, silaba azentuduna aurkitzea.

Azentuaketa hau mendebaldeko azentu pleguari egokitzen zaio, balio morfolo-
 gikoa izanik deklinabidearen zenbait kasutan.

3.6. Lexikoa

Lexikoa aztertzea gure helburuaren muina izan ez bada ere, azpimarratu
 behar dugu honako lexema esanguratsuak erabiltzen direla Basaburuan: *atze*,
aurre, *asko*, *itz egin* eta Ultzaman *gibel*, *altzin*, *anitz*, *mintzatu*. Esanguratsuak
 direla diogu, Ultzaman erabiltzen direnak, hegoaldeko GN-ri dagozkiolako,
 eta bigarrenak, iparraldeko GN-ri.

Ezaugarri hauetako zenbaitek aditzera ematen duenez, badirudi
 Basaburuko euskara berritzaileagoa dela eta Ultzamako zaharkitzaileagoa.
 Arrazoi nagusienetako bat, besteak beste, Basaburuan betetzen diren asimila-
 zio eta laburtzapenen ugaritasunean datza. Honako hauek Basaburuko hiz-
 keran arruntak eta arauzkoak dira: (*aik dee*, *gu ga*, *obet*, *puuxik*), aldaera oso-
 tuagoak aurkituko ditugularik Ultzamako euskaran: (*aiek dire*, *gu gara*, *ogi*
bet, *piruxak*).

Ultzamerak atxiki dituen arkaismoen sailean sar ditzakegu **rtz* kontso-
 nante multzoak mantentzea: *bertze*, *bortz*; eta yod zaharraren bilakabidea.

Baina, ultzamerak dituen gainerako ezaugarri gehienak beste euskalkie-
 kin konpartitzen ditu; alegia, Ultzamako esparruetatik kanpo hedatzen dira,
 ezer gutxi direlarik Ultzamako euskarari bakar-bakarrik mugatzen zaizkion
 ezaugarrien kopurua. Horien artean egon daitezke *dezakezuke* bezalako era-
 bilera pleonastikoak, ziurrenik berrikuntza dena. Gainerako guztiak, maizta-
 sun eta sistematikotasun ezberdinen arabera betetzen dira, eta hauek eman-
 go diote hizkera bati nortasun berezia.

Orain arte esandakoa, hurrengo kuadroaren bidez azalduko dugu

	ULTZAMA	BASABURUA
Bok. irekitzea	Ez	[i] > [e]; [u] > [o] etorri > etorre dut > dot
Asimilazioa	i + a > ie u + a > ue e + a > ia begie, bidia, burue	i + a > ii u + a > uu e + a > ii begii, bidii, buruu
Asim. hurbilkaria a → e/i, u	Maiztasun handia <i>inderra</i>	Maiztasun txikia <i>indarra</i>
Goranzko diptongoak	[ja], [wa] sémja, sórwa	[ea] [oa] semea, soroa
-b-d-g-r > Ø	iguzki, baratze	euzki, baatza
Yod zaharra	yoan, yabe	[xoan], [xaβe]
Errotazismoa	bertze, bortz	beste, bost
Sinkopa	atra, batre	atea, bate
Aferesia	torri, kusi	etorr[e], ekus[e]
u/i txandaketa	bildiko, gelditiko	bilduko, geldituko
Bust. automatikoa	aite, maite	atte, matte

Izen morfologia		
Kasu Destinatiboa	-(en)dako	-(en)tzat/(en)dako
Kasu Soziatiboa	-ki	-kin
Kasu Adlatiboa	-rat (arrastoak)	-ra
Kasu Ablatiboa	-tik: menditik	-tiken: meditakan
Kasu Genitiboa	sg/pl (sinkretismoa)	sg/pl (azentuaren bidez)
Aditz morfologia		
Gero aldia: n, l + k	erranko, inko, errain	erran, iñen
Ahalera	dezakezuke	dezakezu
Pl. 2. pert. morf.	duzie, zaizie	duzte, zaizte
Alokutiboa	maiztasun gutxi	maiztasun handiagoa
Nor-Nori-Nork	ditiot	dizkiot, ditiot
Egon or. aldia	gaude, zaude	gai, zai
Joan or. aldia	nuaye, duaye	nii, dii, nuaye
Nork l. ladia	nuen, zuen	nun, zun
Nor-nori-nork	-r-: dire, direzu	dee, deezu
Eraman pluralgilea	damatxat	damazkit
Joskera		
Uste.....-n/-la	Nik uste in duten	Nik uste in dutela
Denborazko morf.	Maiztasun +: -larik	Maiztasun +: -nean
Kausazko esaldiak	bait-	-lako/ bait-
Obj. zuzena	Genitiboan (arrastoak)	Absolutoan
Nominalizazioa	Utzi -tzera	Utzi -ten
Azentua	Ekialdekoa	Mendebaldekoa

4. EZBERDINTASUNAREN ARRAZOI BATZUK

Ultzamako eta Basaburuko hizkeren artean suertatzen den mugaren arrazoa faktore ezberdinetan oinarritzen dela uste dugu. Alde batetik, esan behar da hiztunak konsziente direla dagoen diferentziaz; are gehiago, elkarren arteko ulergarritasuna zaila dela baieztatzen dute

Hona hemen ezberdintasun honetan eragina izan dezaketen faktore batzuk.

a) Geografi fisikoa

Dagokigun kasuan, geografi fisikoa ez da elementu garrantzizkoa mugaren ezarpenean. Jakina denez, Euskal Herriko orografia menditsuak ez ditu herrien arteko komunikabideak erraztu, zenbaitetan, ez beti, bi aldetako hiztunen arteko komunikazioa oztopatu du.

Baina, kasu honen errealitatea nahiko ezberdina da, inolako mendi kate, portu edo erreka garrantzizkorik ez dagoelako Basaburuaren eta Ultzamaren artean. Esate baterako, x/y bereizten duen isoglosa leku zelaitzutik pasatzen da, inolako erreka edo mendi katerik ez dagoelarik muga honetan. Zehatzago

izanik, Muskitzen eta Oskotzen artean, sei kilometroko urruntasuna besterik ez dago.

Bestaldetik, Egozkue (ekialderaen dagoen herria) eta Urritzola (Mendebalderaen dagoena) herrien artean, ia ez dago isoglosarik, nahiz eta geografikoki nahiko urruti dauden. Jakina ere badenez, hizkerak *continuum* dialektalen zehar hedatzen dira, eta kasu honetan, bi herri hauek hizkera bateko bi ertzak dira, beraien artean erabateko ulergarritasuna erakutsiz.

b) Merkatua eta beste giza-harreman batzuk

Jakina denez, merkatuek eta feriek eragina izan dute hizkera baten moldaketan. Komertzio zentruak izatean, herri diferenteetako jendea jartzen dute harremanetan, eta horrek, dudarik gabe, hizkuntz komunitate bat sortzeko eragina ere badu.

Herriko jendeak esaten duenez, Basaburuko eta Imozko jendeak Irurtzunera joaten dira merkatura, hor Sakanakoekin elkartzen direlarik. Ultzamakoek, ordea, beti Anuekoekin eta Odietakoekin izan dute harreman gehiago. Esaterako, lehenago, autorik ez zegoenean, Ultzama haraneko jendeak harreman gehiago zuen Atezko, Anueko eta Ultzamako herrietakoekin. Esaterako, herriko jaietara joateko orduan, normalean ez ziren Basaburura joaten, nahiz hurbil egon.

Bistan denez, oraingo kontua ezberdina da, gaurko komunikabideekin herri batetik bestera mugitzeko horrelako oztoporik ez baitago. Halarik ere, Imotzen eta Irurtzunen arteko harremana mantentzen da oraindik ³.

c) Banaketa administratiboa

Zentru administratibo eta ekonomikoek ere paper garrantzitsua jokatu izan ohi dute mugaren zedarrizapenean. Gure kasuan, zatiketa administratiboak ezartzen duen muga ez da erabatekoa. Esate baterako, Goldaratzek - Imozko Udaletxearen barruan dagoen herriak- Basaburuko herriekin kidetasun gehiago dauka bere haranekoekin baino. Halaber, Muskizko hizkera Imozko Udaletxearen barruan dagoena, Ultzamakoari hurbiltzen zaio gehiago, Basaburukoari baino.

Esanak esan, orokorrean zatiketa administratiboak ere eragina izan duela pensatzen dugu. Ultzamera dei dezakegunaren mendebaldeko muga, Ultzama haran administratiboa bukatzen den herrian aurkitzen da: Ilarregin, hain zuzen ere.

Bi hizkera hauen artean gertatzen dena honako hau da: isoglosa gehienak leku beretik pasatzen dira, hurbil dauden bi hizkeren arteko koinzidentzia hori, elkarren artean ezberdinak sentitzen direlako gerta daiteke. Diferentzia honen iturria faktore ezberdinetan oinarritzen bide da: faktore extralinguistikoen artean, badirudi, muga politiko-administratibo iraunkorra eta isolatzailea izan daitekeela eragilea, edota komertzio eta kanpo harremanen ondorioz osatutako mugak ere eragina izan duela. Faktore hauek guztiek paper

3. Haran hauetan denbora librea erabiltzeko moduz eta afinitate etnikoaren garrantzia ikusteko, aipagarriak dira Homobonoren hitz hauek: *Es muy significativo, por ejemplo, que los jóvenes de Lantz y Añue apenas concurren a los centros de esparcimiento de Pamplona/Iruñea, situados a una veintena de kilómetros de carretera general. Prefieren acudir a salas de fiestas mucho más alejadas pero en zonas euskaldunes, como "Bordatxo" en Doneztebel/Santesteban, a 27 km. y al otro lado del puerto de Belate; también a Malloak, en el puerto de Azpirotz, para acceder a la cual deben recorrer unos 42km. de serpenteantes carreteras locales. Imotz se orienta hacia Irurtzun, otro centro especializado en servicios de esparcimiento (HOMOBONO 1989: 417).*

garrantzitsua jokatzeko dute muga eraikitzeke orduan, baina hauetako batik ere ez da erabakiorra. Arrazoiak, dudarik gabe, ez dira asko aldentzen euskara osorako baliogarriak direnatak.

Arrazoiak bilatu behar dira dialektoen berezko bilakaeran. Jakina ere badenez, isoglosa batek erakusten du elementu baten eragina non bukatzen duen eta non hasten den beste elementuarena. Horrela, sortu den uhinak, ezaugarri baten hedakuntza adierazten duenak, momentu zehatz batean zabaltzeari uzten dio, sortu den puntuaren eragina ez baita uste bezain bizkorra. Hudsonen hitz hauek argi diotenez ⁴.

Euskarari dagokionez, beste gauza jakin bat azpimarratu behar da: euskalkiak mendez mende egungo egoerara hurbildu ahala, elkarrengandik gero eta urrunago, gero eta zatikatuago eta banatuago agertzen direla. Honetan, zalantzarik gabe, gaztelaniarekiko menpekotasunak eta indar banatzaileen eraginak izugarritzko garrantzia izan du ⁵.

5. GOINAFARRERA EKIALDEKOA/MENDEBALDEKOA.

SAILKAPEN BERRI BATEN SAIKERA

Aldez aurretik gogoratu oinarritzko kontzeptu hauek: dialekto edo hizkeren izaera abstraktua da; dialektoak, hizketaren multimorfismoaren gainean ezartzen diren isoglosez osatzen dira, alegia, existitzen hasten dira eremu horien izaera zehaztu eta frogatu denean. Isoglosa hauek oso izaera erlatiboa dute, azken batean adostasun baten fruitu dira. Argi dago, hartaz, isoglosa bati ala besteei garrantzia emanez gero, dialektoen banaketa bat ala bestea aterako dela.

Aurreko lerrootan azpimarratu dugunez, Bonaparteren sailkapenaren arabera, iparraldeko GN-ren muga bat hasten da Ultzamako hizkeran. Ikerle honen lanetara joaz, badirudi, hegoaldeko GN bereizteko hartutako irizpideak honakoak izan zirela:

-*ek* pluralaren erabilera.

-*gan* atzizkia / *baitan* bizidunen deklinabidean.

Irizpide hauetan oinarriturik, esan behar da nahiko egokitua dela Bonapartek eginikako sailkapena. Gainera, sailkapen hau egitea ez zen erraza izan, zalantza eta buruhauste ugari izan baitzuen. Aipatzekoak dira, Nafarroako zenbait hizkerari buruz izan zituen aldaketak ⁶.

Gure azterketan oinarrituz, A eta B eremuak, eta bakoitzaren harremanak zehaztu ondoren, hauxe esan nahi dugu:

a) Hegoaldeko GN eta iparraldekoa bereizten duen muga ez da uste bezain tinkoa. Aitzitik, goian markatutako isoglosa batzuek adierazten dute-

4. "La influencia de un elemento termina cuando los individuos, deciden, por cualquier razón, no identificarse con el grupo que lo usa. Lo que significa que la isoglosa puede hallarse en el mismo lugar donde se hallaba hace un siglo -contrariamente a las ondas de un embalse-, ya que la fuerza de influencia del grupo con el que se asocia el elemento puede que no sea lo suficientemente potente como para hacerla avanzar más" (HUDSON 1981: 52).

5. Interesgarria da Zuazoren (1988) liburuko lehen kapitulua irakurtzea, "hizkuntzaz kanpoko indarren eragina" aztertzen baitu.

6. Hirugarren sailkapenean Nafarroako zatiketa aski kolokan gelditu zen, baina laugarrenerako bi euskalki bereizten ditu: hegoaldekoa eta iparraldekoa. 1863 urtean Goñibarko euskara hegoaldeko goinafarreran sartzen du, eta muga zehatza jartzen du Ibero, Ororbia, Oltza eta Gesalatz herrietan.

nez, GN ekialdearen eta mendebaldearen artean markatu gabeko bereizketa bat iradokitzen da.

b) Isoglosa honek Ultzama hartuko luke GN ekialdekoaren barruan, eta Basaburua eta Imotz mendebaldekoaren barruan. Argi dagoena da, behintzat, ultzamera (Ultzama, Atetz, eta Anue haranetako hizkera barne) dela hegoaldeko GN-rekin kidetasun eta loturarik handiena erakusten duen hizkera. Esan daiteke, laburtzeko arrisku handia badago ere, Baztango eta Ultzamako azpieuskalkiak direla “nafartar” kutsu nabarmenena dutenak; eta Arakil, Araitz, Basaburua eta Bortzirietan, gipuzkerari hurbiltzen zaizkionak. Besteak erdibidean gelditzen direlarik.

c) Esandako honen arabera, Nafarroan mintzo diren euskalkien banaketa Bonapartek emandako sailkapenetik ezberdintzen da. Guk proposatzen dugun honetan, ekialdea/mendebaldea bereizten dugu, eta bakoitzaren barruan honako hizkerak sartuko lirateke:

<p>Goinafarrera ekialdekoa -Orain arte Hego-nafarrera garaia izan dena -Baztan -Ultzama (Ultzama, Anue, Atetz) -Bortziriak (Bortziriak, Sunbilla Malerreka)</p>	<p>Goinafarrera mendebaldekoa -Arakil -Basaburu Nagusia eta Imotz -Basaburu Txikia -Araitz</p>
--	---

Antzeko sailkapen zehatzak proposatu ez badira ere, zenbait dialektologok horrelako hurbilketak egin dituzte: esate baterako, guk egindakoa bateratsu dator Intzak (1921) urtean egindakoarekin. Sailkapen honetan, Ultzama, Odieta eta Xulapain Ultzamakoaren barnean sartzen zituen, eta bestaldetik, Basaburua Handia eta Arakil ematen zituen.


Pagolak (1992: 285) azterketa fonetikoaren burutu ondoren, Ultzamako eremuaren barruan dauden bi hizkeraren arteko diferentziaz jabetu zen, eta honen arabera isoglosa nagusiak nondik pasatuko liratekeen zehaztu zuen. *“Isoglosa nagusiek Aldaz, Beramendi, Arraras eta Goldaratz alde batera utziko lituzkete eta gainerakoak beste aldera”*. Aurrekoetxeak (1992) egindako lan dialektometrikoan, gauza bera iradokitzen zen.

Mitxelenari berari ere entzun genion behin edo beste klase eta hitzaldi ugari eta emankorretan honelako idea bat; alegia, GN ekialde eta mendebaldea hartu beharko genukeela kontutan. Behin bakarrik aurkitu dugu idea hau idatzia. Azentuaren sailkapena egitean, orripeko oharrean, horrela diosku:

Prince Bonapart’s “Southern” (and “Northern” for that matter), as applied to High Navarrese, is a misnomer. It would be more adequate, albeit not quite exact, to speak of Eastern vs. Western High-Navarrese. (MITXELENA 1972 : 113)

Baliteke proposatutako sailkapen hau ausartegia izatea, bereziki aztertutako hizkera oso ongi ezagutzen dugulako, gainerako hizkerez, ordea, ezin dugu gauza bera esan.

Nolanahi ere, jakin badakigu bakarrik proposamen berriak eginez eta denon ekarpen berriekin aurreratu ahal izango dugula dialektologiaren bidean.



BIBLIOGRAFÍA

- AURREKOETXEA, G.; 1992, "Nafarroako euskara: azterketa dialektometrikoa", *Uztaro* 5, 59-109.
- CAMPION, A.; 1977, *Gramática de los cuatro dialectos literarios de la lengua euskara*, Lz. Mendizabal, Tolosa, [=1880]
- ECHAIDE, A. M.; 1988, "Límites de variantes léxicas en el área del alto navarro septentrional", in *Euskara Biltzarra*, II alea, Hizkuntza eta Gizartea, 353-357.
- GAMINDE, I.; 1985a, *Aditza ipar goi Nafarrenaz*, III ale, Udako euskal Unibertsitatea, Iruñea.
- HOMOBONO, J.I.; 1989, "Romería de San Urbano de Gaskue. Expresiones de religiosidad, sociabilidad y reproducción de identidades colectivas", *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*, 54, 405-502.
- HUDSON, R.A.; 1981, *La sociolingüística*, Ed. Anagrama, Barcelona.
- IBARRA, O.; 1992, "Ultzameraz idatzitako bi dotrinaren edizioa eta azterketa", *ASJU* XXVI-3, 915-977.

- IBARRA, O.; 1995, *Ultzamako hizkera. Inguruko euskalkiekiko harremanak*, Nafarroako Gobernu; Hezkuntza, Kultura, Kirol eta Gazteri Departamentua. (inprentan)
- IZAGIRRE, E.; 1966, "Ultzamako euskararen gai batuzk", *BAPXXII*, 403-467.
- KARASATORRE, R. et alter.; 1991, *Etxarri-Aranatzko Euskara eta Arañaz Elkarteko Hiztegia*, Altaffaylla Kultur Elkartea, Nafarroa.
- MITXELENA, K.; 1972, "A note on Old Labourdin Accentuation" *ASJU*, 6, 110-120. [= Palabras y Textos, Servicio Editorial UPV, 1987, 235-244].
- YRIZAR, P. de.; 1981a, *Contribución a la dialectología de la lengua vasca*, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala, Donostia, (2 ale).
- _____; 1989, *El euskera en Navarra (1965-1967)*. Eusko Ikaskuntza (=Hizkuntza eta Literatura, 8. zb.), Donostia.
- ZUAZO, K.; 1988, *Euskararen batasuna*, Iker-5, Euskaltzaindia, EHU, Bilbo.

LABURPENA

Bonaparteren azken sailkapenetik abiatuz, Ultzamera deritzon azpieuskalkia aztertu da lan luzeago batean. Artikulu honetan ikerketa harren puntu garrantzitsuenak ekarri dira. Ondorio nagusitzat ikusten da eremua ez dela isomorfikoa, isoglosa batzuk daude lehenago zen eremu bakarra bi zati nagusitan banatuz: Basaburua eta Imozko herri batzuk alde batetik eta Ultzama, Atetz, Anue eta Muskitz bestetik. Nafarroako azpieuskalki honen ondorioetan oinarrituz, sailkapen berri bat proposatzen da Nafarroako euskalkientzat, Bonaparterena extabaidatuz.

RESUMEN

Partiendo de la última clasificación dialectal de Bonaparte, se ha analizado el subdialecto de Ultzama en un trabajo anterior. En este artículo figuran los principales resultados de aquella investigación. Como resumen final, se deduce que el territorio analizado no es isomórfico, sino que hay una serie de isoglosas que lo dividen: por una parte estaría Basaburua y algunos pueblos de Imotz, y por otra los valles de Ultzama, Atetz, Anue y Muskitz. Basándonos en las conclusiones extraídas en esta investigación, se propone una nueva clasificación dialectal para los dialectos navarros, cuestionando la de Bonaparte.

RÉSUMÉ

Le sous-dialecte d'Ultzama a été analysé dans un travail précédant, en partant de la dernière classification dialectale de Bonaparte. Dans cet article, figurent les résultats principaux de cette enquête. Comme résultat final, on a déduit que le territoire analysé n'est pas isomorphique, mais qu'il existe une série d'isoglosses qui le divisent: D'une part, il y aurait Basaburua et quelques villages d'Imotz, et d'autre part les vallées d'Ultzama, Atetz, Anue et Muskitz. En nous basant sur les conclusions résultant de cette recherche, une nouvelle classification dialectale est proposée pour les dialectes navarrais, qui mettrait en question celle de Bonaparte.

ABSTRACT

The Ulzama subdialect was analysed in a previous work starting from Bonaparte's last dialectal classification. The main results from that research work are included in the present paper. As a final summary we can deduce that the analysed territory is not isomorphic, on the contrary it is divided by a series of isoglosses: on the one hand we would have Basaburua and some villages in Imotz, and on the other the valleys of Ultzama, Atetz, Anue and Muskitz. From the conclusions reached in this research, a new dialectal classification for the Navarrese dialects which questions Bonaparte's is proposed.